

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure inaugurazio eguna ailegatu baino lehen, bezeroak erakartzeko ekintza ugari prestatuko ditu. Lehenik eta behin, hainbat **sare sozialetan** erregistratu gara, hala nola, Instagram-en, langile gazteak erakartzekoa eta Facebook-en, bezero helduagoen erakarpina ekiditzeko.

Horretaz aparte, Parke Teknologikoan kokatzen diren enpresen langileei garrantzia eman nahi diegunez, bertan gure marka zabaltzeko **bilerak** prestatuko ditugu. Bilera hautan gure jatetxearen informazioa jakinaraziko diegu eta gainera beste enpresa guztietan panfletoak banatuko ditugu, gure menuaren berri emanez.

Gure lehiakideekiko ezaugarri bereizgarrietako bat izango da zure menua pertsonalizatzeko aukera zabala eskainiko dugula, inauguratu baino astebete lehenago merkaturatuko dugun aplikazio baten bitartez. App honen bidez, bezeroari egun bakoitzerako ahalik eta zehatzen bere menurik egokiena diseina dezala eskaintzen diogu. Tresna honek eskainiko dituen funtzio garrantzitsuenetako bat gure bezeroaren eguneroko bilketa edo bidalketa-ordua aurrez zehaztea izango da.



Karta digitala, menu-karta klasikoa sustatzen duena, Internetarako sarbidea duen edozein erabiltzaileri aukera emango dio gure jatetxeko karta erraz eta eroso kontsultatzeko.

Gure zerbitzuaren eguneroko erabilera sustatzeko, menua gutxienez astean 4 egunetan erreserbatzen duten pertsonak saritzea erabaki dugu. Besteak beste, % 50erainoko **beherapenak** aurkituko ditugu jarraitzaile leialenentzat. Gure politikari jarraiki, bezero leialari garrantzia emateko menu nagusiaren atal espezifiko bat erabiliko dugu eskaintza eta pack bakarrak izango dituzten kupoi zerrendatu



batzuetarako, eta aurrez aipatutako bezeroek bakarrik izango dute horiek eskuratzeko aukera.

Gure ideia, bezeroak lortzeko hurrengoa da: dauzkagun bezeroei **galdetegi** bat egiteko proposatuko diegu ea zer hobekuntza egin dezakegun eta zer mantendu behar dugun jakiteko. Baita, iragarki erkargarriak egin ditzakegu bezero berri asko lortzeko. Iragarki hauek egiteko gure janariaren argazki biziak eta koloretsuak eta lelo erkargarri bat sortzea da gure pentsamendua. Beste ideia bat parke teknologikoan dauden enpresei gure jatetxearen informazioa ematea eta emailen bidez ere informazioa bidaltzea da, eta bezeroentzat lehenengo eguna dohainik izango da.

Adineko bezeroek nagusituko direnez, gure enpresa iragartzeko tresna erabilgarrienetako bat **irratia** izango litzateke. Horrenbestez, Euskadiko hainbat irradi-kateetan guk egindako iragarki bat agertzea nahi dugu, bertan gure zerbitzuen eskaintzaren laburpen bat atera dezan.



Azkenik, gure eskaintza ahalik eta jende gehienek eskura ailegatzeko, “Espectalium Agency” agentziarekin harremanetan jarriko gara Gotzon Mantuliz gure enpresarekin kolaboratzeko.

Gotzon Mantuliz bizkaitarrak, “Zapeando” eta “El conquistador del fin del mundo” saioengatik ezaguna da eta bizitza osasungarriari, kirolari edo bere bizitzari buruzko gomendioz beteta dauzka sareak.